

Joan-Lluís Lluís

«Kontzientzia katalana existitzen da Ipar Katalunian»

Perpinyàkoa da Joan-Lluís Lluís (1963), Ipar Kataluniakoa. Katalanez diharduen idazle eta kronikari ezaguna da Bartzelonan. Gatuzain argitaletxeak euskaraz argitaratu du aurten *Nire zakurrarekin solasean Frantziak eta frantsetaz*, 2002an egindako liburua. Besteak beste, Frantziak bertako zortzi hizkuntza gutxituak nola hankapean dituen idatzi du gordin asko.

ONINTZA IRURETA

Argazkia: Gaizka Iroz

2002an idatzi zuen liburua, *Conversa amb el meu gos sobre França i els francesos*. Perpinyàrraren asmoa Frantziak eta frantziarretaz ditugun topikoak hankaz gora jartzea zen eta horretarako zakurrarekin izan du elkarrizketa, “liburuko gaiez ezin baita hitz egin frantziarrekin, ukiezinak dira gaiok”. Katalanari eta katalan nortasunari tarte handia egin die Lluisek, beti ere Frantzia presente dela. Hari horri tiraka egin diogu elkarrizketa.

Ipar Kataluniako katalanak errenditu egin al dira?

Inoiz ez da gerrarik egon eta egon bada, duela mende asko bukatu da. Ipar Katalunia Frantziarekin 1659an anexionatu zen. Frantziak katalana irentsi zuen, eta baita beste zazpi hizkuntzak ere —euskara, alsaziera, proventzera, korsikera, okzitania, bretoiera eta flandesera—. Hizkuntza gutxituen artean indartsuena euskara dela esango nuke. Korsikarren %15ak hitz egiten du korsikera eta gainerako guztiak %0 eta 15 artean dabilta.

Frantziak metodo bat baino gehiago erabili du katalana menperatzeko: gutxiespena, hezkuntza sistema...

Garrantzitsuena eskola izan da zalan-tzarik gabe. Eta ez katalanarentzat soilik, metodo bera aplikatu zen hiz-



Ipar eta Hego Kataluniaren arteko harremana estutzeko sortutako Perpinyàko ordezkari zortzi langile ari dira beharrean eta Lluís, batez ere, katalanaz arduratzen da, baita kulturaz ere.

kuntza gutxitu guztientzat. XIX. mendearen bukaeran derrigorrezko eskola ezarri zuten eta hizkuntzak mendeen hartzeko zigorra eta lotsa erabili zituzten, errepresio gogorra. Nire herriko eskolan, 1950. urtean, katalanez egiteagatik zigortzen zituzten ikasleak. Ez dira hainbeste urte. Gero zigorraren beharrik ez da izan, ikasleek ikasi baitzuten eskolan ez zutela katalanez hitz egin behar.

Frantzia eta frantziarrekin oso tonu gogorra erabili duzu. Aldiz, iruditu zait katalanek katalana ez erabiltzea justifikatzen duzula.

Katalanek hizkuntza ez erabiltzearen arrazoi nagusia Frantziako Estatuak ezarritako sistema da. Ipar Katalunia Frantziari anexionatu zitzaionean jar dezakegu abiapuntua. Frantziako Iraultzaz (1789) geroztik berriz, justifikazio ideologikoak erabili dituzte frantsesa ez

Katalana

Ipar Kataluniak 400.000 biztanle ditu, %65ak ulertzen du katalana eta %37ak dio badakiela hitz egiten, baina %6ak baino ez du erabiltzen.

diren gainerako hizkuntzak hankapean hartzeko. Sistematizazioa oso ondo egin da Paristik. Katalanek aurre egin diote Frantziari XVII., XVIII. eta XIX. mendeetan. Ondoren, hizkuntza guztiek burua makurtu dute. Hori dena esanda, noski katalanek hizkuntzaren galeraren ardura dutela. Baina, eskolan haurrak zigortzen zituzten garaian oso erreakzio logikoa izan zen gurasoek haurrak babestea. “Ez hitz egin eskolan katalanez zigortu egingo zaituzte-eta”. Bai, gurasoek egoera hura onartu egin zuten eta haurrak babestu.

Ume ez zirenek ere, prestigio kontuak zirela-eta hitz egiteari utzi zioten.

Frantziarrek hor inteligentzia puntua erakutsi zuten; Francok debekatu baino ez zuen egin. Frantziak eskolan katalana debekatu zuen, baina ordainetan, frantsesa gizarteko eskaileran gora egiteko beharrezko bihurtu zuen.

Dena dela, gaur egun egoera bestelakoa da. Katalanek ez dute katalanez egiten, ez dute transmititzen, baina uste dute katalana hizkuntza baliagarria dela. Katalanen %63ak uste du hurrek katalana ikasi beharko luketela. Katalana ez dakitenen %58k dio hitz egin nahiko lukeela. Jakina, gauza bat da nahi izatea eta bestea hizkuntza ikastea.

Baliagarritasun horrek Hego Katalunia- rekin izango du zerikusia ezta?

Bai, bai. Baina kontua da eskaera horri hemen (Ipar Katalunian) erantzun behar zaiola eta bertako erakundeak oso motel dabilta. Pentsa, haurren %3a baino ez dabil murgiltze eta elebi- ko eredueta.

Ipar Kataluniako katalan ona hizkuntza- rik gabeko katalana dela diozu.

Kontzientzia katalana existitzen da. Katalan sentitzen dira. Sentimendu hori Hego Kataluniakoengandik dife- rentea dela? Ados. Nahi baduzu sen- timendu arinagoa, azalekoagoa, fol- klorikoagoa da. Autonomiaz, independentziaz hitz egitea tabua da... baina nortasun katalana existi-

**“Ipar Katalunian
katalanaren lekuan
mendi bat jartzen dute,
errugbi ekipoa...”**

tzen da. Hori bai, hizkuntzaren lekuan mendi bat jartzen dute, errug- bi ekipoa... Dagoenarekin ahal dena egiten da. Baina bai, egia da, mendia- rekin edo errugbi taldearekin ezin da nortasuna osatu.

Errugbiak katalan sentimendua indartu omen du.

Errugbiak badu bere garrantzia nor- tasunean, eta baita hizkuntzan ere. Bigarren mailako partidetan mega- foniatik bi hizkuntzetan aritzen dira, ereserkia Kataluniako ereserki nazio-

**“Katalanek aurre egin
diote Frantziari XVII.,
XVIII. eta XIX.
mendeetan. Ondoren,
burua makurtu dute”**

nala da. Errugbiak lortu du bazte- rrak pixka bat mugitzea, nahiz eta triste den funtzio hori kirolaren esku egotea.

Katalanista frantseszeleen kontraesa- na azpimarratu duzu: Errepublika defendatu eta katalana defendatu.

Konplexua da egoera. Errepublikatik kanpo ez dago aurrerabiderik. Egitura legeetan aritu behar dugu lanean, daukagun hezkuntza sisteman, adibi- dez. Aldiz, ikuspegi filosofikotik, Frantziarengandik ezin dugu gauza handirik espero: frantziar guztiek ber- dinak behar dute izan, hizkuntza bera izan behar dute.

Dena dela, orain katalana eta beste zazpi hizkuntzak ez dira arriskutsuak Frantziarentzat eta tolerantzia pixka bat erakutsi du. Ez pentsa ordea, Frantziaren helburua laguntzea denik.

Linguizidioa eta krimena moduko hitzak erabili dituzu Frantziak egindakoa azal- tzeko. Bere estrategia ez al da izan ordea hizkuntzak hiltzen uztea?

Bietarik egin du. Lehenengo fasean Frantziak eraso egin zuen, errepre- sioa erabili. Bigarren fasean, duela 50 bat urtez geroztik katalana hil- tzen utzi du. Frantziaren metodoa Francorena baino inteligenteagoa eta eraginkorragoa izan da. 1940ko urteetara arte Ipar Katalunian gehiengoak katalana hitz egiten zuen, ordura arteko galera motela izan zen eta hortik aurrera askoz azkarrago egin zuen behera. Gaine- ra, 1960ko hamarkadan Frantziako iparraldetik jende asko heldu zen hona, katalana existitzen zenik ere ez zekiena, eta populazioa nahasi zen.

Zer da hobe, katalan espainiarra izatea ala katalan frantsesa?

Katalan europarra izatea da onena. Nik esan ohi dut, hizkuntzari begira, katalan espainiarra izatea hobe dela han eskubideak badituzulako –hiz- kuntza ofiziala da adibidez–. Baina negozio ona ere ez da, tranpa dauka luzera begira. Espainiak uniformiza- zioa hobesten du, eta beraz, aurrez aurre jartzen dira katalanaren defen- tsa eta Espainiaren integritatearen defentsa. ■

Babeslea: Tolosako Udala



Tolosako
Euskara Zerbitzua

*Egunero zure
"euskara" esanetara*

Plaza Zaharra 6A • 20400 TOLOSA
Tel.: 943 697 453
euskara@tolosakoudala.net